

l a b u r r e a n

■ EAEn industria jarduerak hazten jarraitzen du eta otsailean %11,9 igo da

INDUSTRIA jarduerako indizeak Euskal Autonomi Erkidegoan urtarrilean izan zuen gorakadari eutsi zion otsailean ere. Guztira %11,9ko hazkundea izan du, atzo Eustatek aurkeztutako datuen arabera. Hala ere, urte honetan otsailak egun bat gehiago izan zuenez, aurreko urteko emaitzekin alderatuz gorakada %6,9koa litzateke. Ia alor guztiak hazi ziren otsailean. Ehun eta konfektzio atalak emaitza negatiboa izan dituen bakarra da.

■ Gasteizen Mercedes Benzek daukan lantegiak %20 igo ditu auto salmentak aurreko urtearekin alderatuz

MERCEDES BENZ nazioarteko enpresak Gasteizen daukan plantak, guztira, 25.477 auto saldu ditu 2000. urteko lehen hiru hilabeteetan. Kopuru horrekin, eta aurreko urteko datuekin alderatuz, %20,63ko salmenta gorakada izan du plantak. Gasteizen saldutako autoetatik 21.312 Vito modelokoak ziren. Gainontzekoak V motakoak. Bestalde, Espainian %13,10 igo ditu salmentak Mercedes Benzek, guztira 117.697 milioi pezetako salmentak izanda.



RICHARD DREW / AP

New Yorkeko errekupeazioak beldurra uxatu du munduko merkatuetatik. Herenegun igoera nabarmenekin itxi zuten beren saioa Wall Streeteko indizeek, eta atzo ere goranzko joerari eutsi zioten, batik bat prezio baxuengatik eta hainbat enpresa handiren emaitza onengatik. Ostiraleko danbatekoaren ostean, munduko burtsak lasaiago daude orain.

Agiri Sozialaren helburuan ados jarri nahi dute alderdiek

Maiatzaren 15a arte Legebiltzarreko lan taldea ez da bilduko

Ivan Santamaria / Gasteiz

Bigarren bilera egin zuen atzo EAEko Legebiltzarrean Agiri Soziala aztertzeko osatu zen lan taldeak. Herri ekimen legegilea ez zen atzo bileran izan, eta alderdiek lehen hartu-eman zuzena izan zuten. Lehen artikulua aztertu zuten alderdiek, legearen helburua.

LEHEN PAUSOAK motel ematen ari da Agiri Soziala aztertzeko lan taldea. Bigarren bilera zen atzokoa, eta soilik lehen artikulua izan zen mahai gainean.

Lehen artikulua horretan legearen helburu orokorrak azaltzen dira, eta, hori baliatuz, alderdi bakoitzeko ordezkariak euren ideiak azaldu zituzten. Langabezia eta

oinarrizko errentaren arteko lotura gutxi gorabehera alderdi guztiek onartzen duten zerbait denez, hurrengo bilerarako zuzenketa transakzionalak prestatuko dituzte, adostasun batera iristeko asmoz. Nekane Alzelai EAKo legebiltzarkide eta lan taldeko presidentea posible ikusten du. «Zenbait gaitan jarrerak oso argi dau-

de, baina beste batzuetan gutxieneko adostasun batera iristeko aukerak badaude». Aurrerago, ordea, alderdien arteko ezberdintasunak agerian geratuko dira.

Alderdien arteko lehen bilkura horretan lan eskubideari edo oinarritzko errentaren eskubideari buruz eztabaidatu zuten talde parlamentario guztietako ordezkariak, baina modu orokorrean.

Aste Santua eta bazko oporretako geldialdia dela eta, ia hilabete oso bat igaroko da lan taldea berriro bildu baino lehen. Lan taldearen hurrengo bilkura maiatzaren 15ean izango da, goizeko 10:00etatik aurrera.



JUAN HERREO/EFE

Pasaiako Ontziolak bi ontzi itsasoratu ditu egun berean.

Pasaiako Ontziola enpresak bi arrastre ontzi itsasoratu zituen egun berean. Gipuzkoako taldeak bere historian lehen aldiz egin du hori. Bi ontzien izenak *Foyle Warrior* eta *Northern Celt* dira, eta bakoitzak zortzi lagun eramateko edukiera du eta arrantzarako teknika berrienak ditu. Ontzi biki hauek 500 milioi pezetako gastua eragin dute.

Burtsa

• J.B. ANDUEZA •

Bi aldiz harri bertan

Gizona da bi aldiz harri bertan estrapuz egiten duen aberea, Gotzon Garateren 2.536. atsoititzaren arabera. Eta burtsa gizakien salerosketek osatzen dutenez, ez litzateke harritzekoa Merkatu Berria harri bihurtzea. Atzo, lehen ordu eta erdian, Nasdaq indizeak %10 irabazi zuen, eta Bilbon ere, EEBB-tako haize hori lagun, irabazi

apal bihurtu ziren egun osoko zalentzak eta dudamudak.

Igoera garbiak tekno akzio ipotxek izan zituzten (Amadeusen %5,26, Indraren %2,15 edo Terraren %5,11). Edurnezurik (Telefonica) %1,13 irabazi zuen. Beste berrotualdi azkar batek estrapuz egitea eragin dezakenez, arreta jartzea komeni da.

Bilboko 2000 Indizea



Dibisen merkatua

	1 Euro
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,94970
Libra Esterlina	0,60330
100 Yen (Japonia)	0,98970

Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	10.736,70 (+%1,46)
Tokio (Nikkei)	18.969,52 (-%0,21)
Madril (IBEX-35)	11.261,50 (+%0,36)
Paris (CAC-40)	6.147,44 (+%1,43)
Londres (FTSE 100)	6.074,00 (+%1,32)
Frankfurt (DAX-XETRA)	7.196,49 (+%0,13)
Milan (Mibtel)	29.834 (+%0,80)

+%0,40

Diferentzia

1.983,22

Atzoko indizea

1.975,38

Aurreko indizea

* Eguerdia arte

■ **SOL MELIA** eta Telefonikak akordio bat sinatu dute, Interneteko atari bat sortu eta enpresen arteko merkataritza elektronikoa bultzatzeko asmoz. BBVA, Barcelo bidaiek eta Iberostar ere partaide izango dira atari berrian.

■ **BBVak** Euskal Herrian eta Espainian inoiz egin den kapital zabaltze handiena jarri du martxan, SEP Saltzeko Eskaintza Publiko bidez.